



Zaraobe Institutua.

■ Amurrioko Zaraobe Institutuak Salernoko 25 ikasleri harrera egingo die urriaren 18tik 25era iraungo duen elkartrukean

■ El Instituto Zaraobe de Amurrio será anfitrión del 18 al 25 de octubre del intercambio con 25 escolares de Salerno

Salernoko "Regina Margherita" Lizeoko hogeita bost italiar ikaslek Amurrioko Zaraobe Institutuko beste hogeita bost ikaslerekin eginiko elkartrukearen bigarren zatian hartuko dute parte. Urriaren 18tik 25era izango da oraingoan topaketa. Batxilergoko 2. mailako amurriotar ikasleak joan den ikasturtean izan ziren Salernon, eta italiar ikasleen etxeetan hartu zuten ostatu. Italiar ikasleak espainiera ari dira ikasten euren ikastetxean. Ikasle bisitariak bi irakaslerekin batera etorriko dira. Irakasle horiek Salernoko ikasleekin eginiko elkartrukearen lehenengo zatian ere hartu zuten parte. Beste alde batetik, Zaraobe Institutuko irakasleen arteko hamarren bat ibiliko dira ikasle guztiekin, Donostiara, Bilbora, Guardiara, Gasteizera eta Urduñara egingo dituzten bisitaldietan. Amurrioko Udaletxerako bisita ere aurreikusita dago.